



# Erronkari Ibarra

Reyno de Navarra Nafarroako Erresuma

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

**Turismo de Roncal**  
ASOCIACIÓN TURISMO EIKARTEA

**Erronkariko Turismo Bulegoa | 948 475 256**  
[oit.roncal@navarra.es](mailto:oit.roncal@navarra.es)

**Nafarroako Paisaien ibilbidea**

Begiratokia	Hegaztien behatokia	Denda, artisauek, ekoizlea
Baseliza	Eski alpinoa	Gaztandegia
Jauregia	Iraupeneko eskiko pistak	Gasolindegia
Erdi Aroko Zubia	Espeleologia	Jatetxea
Megalitoa	Esklada	Kanpina
Museoa, Interpretazioa Zentroa	Ur-jauzia	Landetxea
Merenderoa	Herri bidea	Landa apartamentua
Bainu gunea	Mendiko bizikleta	Hotelak, hostalak eta pentsioak
Lezezuloa	Kutxazain automatikoa	Aterpetxea
Arroila	Osasun etxea	Mendi-aterpea
Mendatea	Farmaziak	

0 km. 2 km. 4 km. 6 km. 8 km. 10 km.

[www.turismo.navarra.es](http://www.turismo.navarra.es)

# Erronkari Ibarra

Pirinioetan bertan dago, Nafarroa, Aragoi eta Frantzia elkartzaren diren eremuan; izan ere, Erronkari ibarra sentazioz beteriko lurraldea da. Natura hutsak,

milaka urteko historiak eta antzinako tradizioek bat egiten dute hemen, baina, egia esan, gauza horietako bakar batek ere bisita egitea merezi luke. Kolorez eta zaporez beteriko mundua.

Eska ibaia da herri, baso, larre eta haitzek osatutako multzo harmoniatu horren bizkarrezurra. Pirinioetako arkitekturak antzina-antzinako eraikinak eskaintzen ditu Erronkariko zazpi herrietan (**Burgi, Bidankoze, Garde, Erronkari, Urzainki, Izaba eta Uztarroze**); eraikin zahar horietako portale, armari, ezkutu eta horma sendoetan antzematen da harri horiek gordetako historia oparora.

Arroila meharretan barrena, hala nola Burgi eta Mintxatekoetan, bisitariak dudarik gabe txundituko duen ibar batean sartzeko aukera izanen du. Historia sumatzen da bertako bazter bakoitzean, eta, gainera, ingurune naturala zinez zoragarria edozein dela ere egin nahi den kirola: mendi-ibilaldiak, mendia, eskalada, eskia —ipar eskia, alpioa, zeharkaldia, elur-erraketak—, edozein modalitatetako ziklismoa, parapentea edo piraguismoa.

Erronkariko jantzi tradizionalen edertasuna ikusteko aukera ematen duten festak ere badira. Horietan, gainera, hainbat kontu gozagarri daude: almadien jaitsiera ibaitik; Erronkariko gazta preziatua dastatzea; edo Hiru Behien antzinako tributua ordaintzen ikustea, zeremonia paregabea munduan, bai antzinakotasunagatik, bai Larrako Natur Erreserban egiteagatik.

Erronkari ibarra da Sorollak margotu zuena, Ortiz de Echagüek argazkitan agertu zuena, eta Julián Gayarreren mausoleoa bere baitan biltzen duena —eraikina Mariano Benlliuren lana da—. Burualdean Nafarroako glaziar-haran bakarra dago: Belaguako ibarra. Erronkarin, ikusten dena bezain ederra da ikusten ez dena; izan ere, bertako lurpea espeleologoen paradisu da.

**Erronkari, azken batean, sentitzeko, bizitzeko eta gozatzeko moduko ibarra da. Patxadaz.** ●

## Tradizioak

### Almadiaren eguna

Burgiko herriak "Almadiaren eguna" ospatzen du maiatzaren hasieran; Interes Turistiko Nazionaleko Festa izendatuta dago, eta mendeetan zehar Pirinioetako uretan beheiti egurra garraiatzen aritu ziren erronkariaren omenez egiten da. Egurra eramateko "almadiak" egiten zituzten, hau da, hurriz-hagen bidez lotutako enborrek osatutako baltsak, muturretan arraunak zituztenak. Festa horretan zenbait almadia jaisten dira Eska ibaian zehar, eta bide baten ondoren, Burgiko Erdi Aroko zubian gelditzen dira. Eguna osatzeko, erakusketak, musika-emanaldiak, dantzak, eskulanen azokak eta dantza egiteko musika izanen dira.

[www.almadiasdenavarra.com](http://www.almadiasdenavarra.com)



### Hiru Behien Tributua

GARDE

Urtero, uztailaren 13an, milaka urte dituen zeremonia egiten da San Martin harrian, Erronkari eta Baretoseko ibarren arteko mugan; ekitaldia paregabea da munduan: Hiru Behien Tributua. Interes Turistiko Nazionaleko Festa izendatuta dago. Indarrean dagoen itun zaharrena da European.

Bearnotarrek hiru behi ematen dizkiete urtero Izaba, Urzainki, Uztarroze eta Gardeko biztanleei, betiko den tributua baten ondorioz. Bi aldeetako agintariak, eskua San Martin harriaren gainean jarrita, bakeak bere horretan jarrai dezan hartzen dute konpromisoa, "Pax avant, pax avant, pax avant" esaldia adierazi bitartean.

### Sorginaren jaitsiera

Sorginaren jaitsiera Bidankozen egiten da abuztuko azken asteburuan Gauerdian, "Maruxa" sorgina herriraino jaitsi eta akelarre bat hasten da bertan, herriko festekin batera.

#### GAZTANDEGIAK

**BORDA MARENGO**  
(Belagua) 948 394 039

**LARRA**  
(Burgui) 948 477 046

**ENAQUESA**  
(Roncal) 948 475 014

**EKIA-KABILAENEA**  
(Uztarroze) 948 893 236

**ONKIZU**  
(Vidángoz) 948 477 013



ERRONKARIKO GAZTA  
ETA OGI APURRAK

## Behatokiak

- ★ **Larra-Belaguako behatokia:** Belaguako mendatean dago (NA-137 errepideko 17. km-an). Mahai panoramikoa dago bertan.
- ★ **Burgiko arroila:** ibilbide natural erraza eta zoragarria, bideari segika arroilako behatokia doana; Natur Erreserba izendatuta dago. Izugarritzko hegaztien behatokia da.
- ★ **Lazako behatokia:** Behatoki ederra; bertatik Nafarroako Pirinioen gaineko ikuspegia dago Erronkari eta Zaraitzu ibarren arteko mugaren aldera.
- ★ **Coronasko behatokia:** NA-214 errepideko 6,7 kilometroan dago. Pirinioetako ikuspegia eta erronkariko ardidibidearen pasabide gunea da.

## Museoak

- ▶ **Naturaren Interpretazio Zentroa:** Erronkarin. Bertan diren ikusentzunezko, panel, maketa eta bideoek ibarreko flora, fauna, usadioak eta hango biztanleen bizimodua ezagutzeko aukera ematen dute. **948 475 256** | [www.cinroncal.es](http://www.cinroncal.es)
- ▶ **Julián Gayarre museo-etxea:** Julián Gayarreren etxean dago, bere sorterrian bertan, Erronkarin. Bertan badira dokumentuak, argazkiak, sariak... **948 475 180** | [www.juliangayarre.com](http://www.juliangayarre.com)
- ▶ **Gaztaren museo:** museo etnografiko txikia, esnea gazta bilakatzeko prozesuaren berri zehatza ematen duena. Uztarrozen dago, Eki gaztandegiko eraikin berean. Sarrera dohainik. **948 893 236** | Orduetgia: 09:00etatik 13:30era.
- ▶ **Almadiaren museo:** Almadiari buruzko museo etnografikoa, Burgiko udaletxean bertan. **948 477 153** | [www.almadiasdenavarra.com](http://www.almadiasdenavarra.com)
- ▶ **Lanbideen herria:** Burgi museo-lurralde bihurtu da, eta herri horietan garai batean tipikoak izan ziren lanbideen ezaugarriak ezagutzeko aukera ematen digu: arropa garbitzailea, almadiak, txondorrak, labea, karobia, harrobia eta zerratokia.
- ▶ **Oroipenaren Etxea:** Izaban. Taldeka bisitatzeko aurretik eskatu behar da hitzordua. **948 893 005** (Udala) **948 893 251** (museoa) | [www.isabacasadelamemoria.com](http://www.isabacasadelamemoria.com)

## Iraupen-eskia

**Erronkariko Ibarreko Mendi Zentroak** ([www.roncalia.es](http://www.roncalia.es)) eta bertako eski nordikoaren estazioak —Belaguan dago— instalazio bikainak dituzte elurraz gozatzeko moduko ingurune pribilegiatu batean, Pirinioetan bertan.

Estazioa bi sektoretan banatuta dago: batetik, EL Ferial guztira 16 km-ko pistak dituena, eta hantxe daude eraikin nagusia (alokairua, jantetxea, taberna, denda eta spa) eta eski-eskol ([www.escuelaesquironcal.com](http://www.escuelaesquironcal.com)) eta bestetik, LA CONTIENDA kafetegia eta eskiatzeko moduko 5 km dituen.



IRAUNPENENKO ESKIA



[www.vallederoncal.es](http://www.vallederoncal.es)

© Nafarroako Gobernua  
L.G.: NA 693-2020 (Maiatza 2020)  
**M008**

## Mendiko bizikleta eta errepideko ziklismoa

Ziklismoa da Erronkari ibarrak eskaintzen dituen alternatibetako bat, bi modalitateetan: mendikoa eta errepidekoa. Bertako zirkuituetan 100 km baino gehiago daude, eskarmentua duten zaleak gogobetetzeko modukoak. Urtean bi lehia egiten dira: Bidankozen badira BTTrako bi ibilbide balizatu (informazio gehiago [www.vidangoz.com](http://www.vidangoz.com) webgunean). Egokitu dira aparkatzeko toki bat eta hartan paratu dira seinaleak, markesina bat, piknika egiteko mahai bat, bizikletak garbitzeko toki bat eta, haren ondoan, aukarabandako hustubide bat.

- **Larra-Lorraine**, iraileko lehen asteburuan egiten da, eta ospe handiko mendateetatik barna doa, adibidez San Martin Harriko, Issarbe eta Lorraineko mendietatik; bi bide daude proban, 100 eta 143 km-koak. [www.larra-larrou.com](http://www.larra-larrou.com)

## Eskalada

Bidankozen badira eskaladarako ekipatutako 2 sektore.

**Azanzoreko leizean** daude ibilbiderik gogorren eta aldapa handienekoak.

**Belaskoko Harrarten**, herriaren ondoan, bada aski horma luzea, maila guztietako bide anitzekin. Zure atzealdean duzun ezproian ere badira zenbait bide, eta egin daitezkeen horma gehiago ibar osoan.

Informazio gehiago <http://vidangoz.com> webgunean.

## Mendi ibiliak

Erronkaribarko herri guztietan badira tokiko ibilbide anitz, **GR 321 Errege Bidea**, ibarreko herri guztietatik iragaten dena eta Belaguako aterpetxean bukatzen dena, eta **GR 11** eta **GR 12**, Izabatik eta Belaguatik iragaten direnak, hurrenez hurren. Ibilbideen gaineko informazio gehiago web honetan: [vallederoncal.es/actividades-al-aire-libre/senderismo](http://vallederoncal.es/actividades-al-aire-libre/senderismo)

Toki mailako bide hauek nabarmentzen dira:

→ **Zemeto:** bidexka Belaguako aterpetxeko aparkalekutik abiatzen da (54. km-an), eta goi-mendiei begira dagoen Belaguako goialdean barna doa. [Iraupena: 1 h 30' | Distantzia: 4,5 km | Zailtasuna: erraza]

→ **Dronda (Mata de Haya):** Belaguako ibarraren hauspoa ezagutzeko bidea, Izabaren eta Frantziaren arteko 45. kilometroan dagoena. [Iraupena: 2 h 30' | Distantzia: 10 km | Zailtasuna: erraza]

→ **Burgiko arroila:** bidea Burgitik abiatzen da Eska ibaia erantzeko eta urak milaka urtean landutako arroila ezagutzeko. [Iraupena: 45' | Distantzia: 3,5 km | Zailtasuna: erraza]

→ **Azanzorea leizea:** bidea 6. kilometroan abiatzen da, Burgi-Bidankoze gurutzetik (gune txiki bat dago aparkatzeko). Errepidearen eskuinaldean bidexka bat abiatzen da, 20 minutuan leizeraino heltzen dena. Bide beretik jaisten da. [Iraupena: 40' | Distantzia: 2,1 km | Zailtasuna: erraza]

→ **Boca bidea:** Urzainkitik abiatzen den bidexka, inguruko bazter atzendu bat erakusten diguna. [Iraupena: 1 h 30' | Distantzia: 5,2 km | Zailtasuna: erraza]

Mendi-lasterketak maite dituztenentzat, ekainean **Camille Extreme** proba egiten da. 31 km-ko bidea, Ezkaurre mendira igotzen dena (2.047 m).

**Infernua paradisu** [www.adi-ike.com/es](http://www.adi-ike.com/es)